

IV

Osoko bilkura

Iruñean, udaletxean

2024ko apirilaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
González de Viñaspre, Roberto,
diruzaina

Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Irazu, Jose «B. Atxaga»
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Videgain, Xarles
Zabaleta, Patx

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Adolfo Arejita idazkaria, Aurelia Arkotxa eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Andres Urrutiari; Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari eta Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Joseba Asiron Iruñeko alkateak hurreratu diren euskaltzainak hartu ditu Iruñeko Udaleko Harrera aretoan. Berehitzetan batik bat azpimarratu ditu Euskaltzaindiaren lana eta Nafarroako hiriburuaren eta euskararen arteko harremana. Andres Urrutia euskaltzainburuak Iruñeko Udalari eskerrak eman dizkio harreragatik, bai eta osoko bilkura antolatzeko emandako erraztasunengatik ere.

Sarrerako ekitaldi horren ondoren, udaletxeko osoko bilkuren aretora abiatu dira euskaltzainak. Harreraren ondoren, A. Urrutiak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, 2024ko apirilako Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren (2024-03-22) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Ohar idatzirik ez da jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko martxoaren 22ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharra (LI). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Martxoko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Garikanok eta M.L. Oñederrak egindako oharra aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere.

Ohar guztiak onartu dira, baina A. Urrutiak *FORU(-)LEGE* formaren definizioa Nafarroara mugatuta dagoela aipatu du, eta adiera berria behar dela Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Aragoi eta bestelakoak kontuan hartuko dituen. Horrez gain, gehitu du EAEn *foru*-arauak badirela, baina *foru(-)arau* sarrera falta dela hiztegian. Hori dela eta, jakinarazi du bi proposamenak bilduko dituen oharra bidaliko duela hurrengo osoko bilkuran erabaki eta zerrenda osoa onartutzat eman ahal izateko.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharra (LII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharra egiteko epea zabaldu da, maiatzaren 20 (astelehena) artekoa.

4. Onomastika: Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak (araugaia).

Getariako Talaia.

Martxoko Osoko Bilkuran, A. Alberdik adierazi zuen Getariako izenen zerrendan *Talaia* deritzon muturra gehi zitekeela, eta ohartarazi zuen Getariatik Zarautz aldera doan errepideko tunel bat izendapen horrekin identifikatzen dela.

Onomastika Batzordeak aztertu du gaia. Tunel horrek gainean duen *Lasuntalaia* tontorretik itsas hegian dagoen *Altzagako harria* izeneko puntara doan

mendi-adarra zeharkatzen du alderik alde. Tunelak tontorretik hartzen du izena, eta hori *Lasuntalaia* moduan ageri da Getariako Udalak argitaratutako mapan, ahoz bildu zen bezala. Gehigarri gisa, Lasuntalaia izenaren 1865. urtetik gaur egun arteko lekukotasunak biltzen dituen zerrenda eskuratu zaie euskaltzainei. Onomastika Batzordeak uste du tunelaren seinaleztapeneko Talaia izen generikoa dela, *Lasuntalaia* osoaren izendapen laburtua, eta izen osoa hartzea proposatu du.

Grafiari dagokionez, X. Kintanak aditzera eman duenez, badirudi *lazun* arrain-izena dagoela toponimoaren jatorrian, baina idatzizko dokumentazioan *Lasuntalaia* bakarrik jaso da. Erabateko ziurtasunik ez dagoenez, zuhurtziaz, dokumentazioan jasotakoa proposatzea hobetsi du Onomastika Batzordeak. Adostasunik ez denez egon, grafiari buruzko bozketa egin da: *Lasuntalaia* (21 boto), *Lazuntalaia* (1), eta 5 zuri.

Aurrekoa argitu ostean, arauan toponimo-zerrendarekin batera argitaratuko diren mapak (11 denera) prestatu dira, eta horiek guztiak banatu zaizkie euskaltzainei. Mapak egitean, Onomastika Batzordeak ikusi du komeni dela beste bost toponimo zerrendara biltzea. Banan-banan aurkeztu ditu Onomastika batzordeburuak:

- **Arriluzeko kaiko itsasargia (-a).** Zerrendan *Arriluzeko itsasargia* ere ageri da, eta izen hori, maiz, kaiaren puntan dagoen itsasargiarekin nahasten da. Nahaste hori saiheste aldera, Onomastika Batzordeak uste du egokiena dela *Arriluzeko kaiko itsasargia* ere gehitzea.
- **Itsas bidaiarien terminala (-a).** 2024. urtean abian jarritako kai berria da, itsas bidaiarien terminal moderno batez hornitua. Erreferentziazko lekua izaten hasi da, eta komeni da izendapena arautzea.
- **Portuondo.** Izen bera daraman punta jadanik zerrendan zegoen, baina Batzordeak uste du garrantzi handiagokoa dela senadia bera, izenaren argigarria izateagatik ez ezik, kultura-ondare gisa duen balioagatik ere.
- **Zumaiako itsasargia (-a).** Gipuzkoako itsasargi nagusietakoa da, zerrendan gehitu beharrekoa.
- **San Antongo itsasargia (-a).** Hau ere Gipuzkoako itsasargi nagusietakoa da, zerrendan gehitu beharrekoa.

Osoko bilkuran aho batez onetsi da bost toponimo horiek gehitzea. Horrenbestez, onartu da «Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak» araua.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: letra larri eta xeheei buruzko laugarren txostenaren lehen partea. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

A. Mujika EBE Batzordeko kideak adierazi duenez, letra larrien 4. txostenaren lehen zatiari hiru euskaltzain osok egin dizkiote oharrak: A. Alberdik, I. Bordak eta P. Zabaletak. EBE Batzordeak aztertu ditu, eta erantzuna prestatu du.

A. Alberdiren oharrak txosteneko idazte-akatsak zuzentzeko edo esaldiren bat argiago idazteko proposamenak dira, eta denak onartu ditu EBE Batzordeak. Mamiari ez dagozkionez, zuzenean onartu dira, eztabaidatu beharrik gabe; Letra larrien 4. txostenaren lehen zatia Osoko Bilkurari aurkeztu ondoren, I. Bordak jakinarazi zuen jai zibilen atalean ez dela aipatzen nola idatzi behar diren dataren bidez izendatzen diren jaiak, eta Frantziako jai bereziren baten adibideren bat jartzea ere eskatu zuen. Oharrari erantzuteko, txostenean adibide batzuk sartzea proposatu du EBE Batzordeak. Zehazki, 2.3.10.4.5 puntuan (Zerbait ospatzeko egunak, asteak, hilabeteak edo urteak: jai zibilak), *Armistizioaren Eguna* adibidea eranstea, eta, bestalde, paragrafo hau gehitzea:

Gertaera historiko bat urtea aipatu gabe, baina data baten bidez adierazten denean, gertaera historiko horri dagokion jaieguna letra larriz hasita idazten da:

Dendak itxita egongo dira Maiatzaren Lehenean (Lanaren Nazioarteko Egunean); Urte hartan, Frantzian handikiro ospatu zen Uztailaren Hamalaua; Katalan guztiak elkartu ziren Irailaren Hamaika (Kataluniako Diada) ospatzeko; Europako lurralde askotan ospatzen da Azaroaren Hamaika, hau da, Armistizioaren Eguna.

Zalantza egin da parentesi artean ageri den «Lanaren Nazioarteko Eguna» izendapenaren inguruan, eta parentesi hori kentzea hobetsi da, ez baitio eragiten gaiari. Azkenik, 2.3.11 puntuan (4. txostenaren bigarren zatian dago), izendapen antonomasikoen adibideen sailean, hau eranstea onartu da: «Abuztuaren Lauko Gaua (1789ko abuztuaren 4ko gauean Frantziako Biltzar Konstituziogileak sistema feudala abolitu zuen Frantzian)».

Bestalde, P. Zabaletak bi ohar orokor aurkeztu ditu, eta EBE Batzordeak azalpenak eman ditu. Batetik, P. Zabaletak adierazi du arauetan xehetasunak eta azalpenak gehigarri moduan eman behar lirатеkeela. Batzordeak adierazi du beharrezkoa dela gomendio bakoitzaren atzean zer argudio dagoen adieraztea, hau da, deskribapen xehea ere egin behar dela, baina, horrekin batera, arau edo

gomendio zehatza zein den aurkitzeko bideak jartzen direla, hala nola laburduren zerrenda, sinboloen zerrenda eta, letra larri eta xeheen atalean, adibideen bidezko aurkibidea. Bestalde, egitasmoa burutzen denean, eta hala erabakitzen bada, ortotipografiako arauak gaiaren arabera aurkitzeko bidea eskain daiteke webgunean, baliabide informatikoak erabiliz ez baita zaila aurkibide lagungarri bat diseinatzea.

Bigarren oharra liburuen izenei buruzkoa da. Ohargileak adierazi du nazioarteko ohiturak aintzat hartu behar direla, eta azaletan ohikoa dela hitz guztiak letra larriz hasita ematea. EBE Batzordeak adierazi du nazioarteko arauak betetzen direla halakoak daudenean, hala nola sinboloen idazkeran, eta, nazioarteko araurik ez dagoenean, inguruko hizkuntzen jokabideari erreparatzen zaiola. Liburuen izenburuei dagokienez, proposatu den irizpidea bat dator, neurri handi batean, gaztelaniaren, frantsesaren eta katalanaren irizpidearekin.

Azkenik, Batzordeak adierazi du ortotipografiako gomendioak, liburuen izenburuetan letra larriak erabiltzeari dagokionez, izenburu horiek testu arruntetan erabiltzen direnerako direla eta ez dutela balio liburuen azaletarako. Modu esplizituan hala adierazita dago letra larrien txostenean. Liburuen azaletan, era guztiak erabiltzen dira, eta guztiak dira zilegi, diseinu- eta estetika irizpideen arabera egokitzen baitira letrak azalean.

6. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: letra larri eta xeheei buruzko 5. eta 6. txostenak. Aurkeztu

Letra larri eta xeheei buruzko azken bi txostenak (5.a eta 6.a) aurkeztu ditu EBE Batzordeko A. Mujikak. Bosgarren txostenak *Letra xeheen erabilera: non eta noiz ez diren erabiltzen letra larriak* du izenburua, eta 21 puntutan zehazten da noiz ez diren erabili behar letra larriak.

Koloreen izenei dagokienez, zenbaitetan, izen berezi batez lagunduta erabiltzen da kolorea adierazten duen hitza, kolore edo tonaltate jakin bat bereizteko. Halakoetan, izen berezia letra larriz hasita idazten da, eta aposizio-egiturak erabiltzea proposatu du EBE Batzordeak, baina egitura horren egokitasunari buruzko galdera utzi dio Osoko Bilkurari.

Seigarren txostena letra larri eta xeheen gaikako aurkibidea da. 555 sarrera edo adibide bildu dira, eta alfabetoaren hurrenkeran paratu, erabiltzaileari adierazteko

letra larri eta xeheen atal zabaleko zer puntu zehatzetan dagoen gai horietako bakoitzari buruzko irizpidea eta argibidea.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, maiatzaren 20 (astelehena) artekoa.

7. Esku artekoak

7.1 Bernard Goity euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. 2024ko apirilaren 15ean hil zen, 97 urte zituela. Izpuran (Nafarroa Beherea) jaio zen Bernard Goity, 1926ko maiatzaren 15ean. Zuzenbide Kanonikoan doktorea (Okzitaniako Tolosako Institutu Katolikoa), apaiza eta Baionako Andredena Maria katedraleko kapituluburu ohia izan zen; *Herria* astekariko diruzain ohia ere bai. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1983ko apirilaren 28an.

7.2 Euskal Herriko ohorezko euskaltzainak, atzerrikoak barne direla, bai eta Arabako eta Nafarroako euskaltzain urgazleak ere, izendatzeko prozedura ireki da. Gogorarazi da, proposamenak idatziz eta, gutxienez, bi euskaltzain osoren sinadura dutela aurkeztu behar direla. Halaber, gaiak aurrera egitea izan dezan, Osoko Bilkuraren bozen nagusitasuna erdietsi beharko du. Beraz, hautagaiak hurrengo osoko bilkura baino lehenago aurkeztu ahalgo dira. Bozketa Baionan egingo da, Herriko Etxean, maiatzaren 31ko osoko bilkuran.

Zuzendaritzaren asmoa da, euskaltzaineekin hitz egin ondoren, zerrenda bat adostea eta, ahal den neurrian, bozketa ekiditea, inor kanpoan gelditzea eta mintzea ekidin ahal izateko.

7.3 Gaur banatuko den liburua. *Junes Casenave-Harigile. Zortzi pastoral berri* (I. tomoa). Paratzailea: Jean-Baptiste Coyos. Euskaltzainak bilduma-44.

7.4 Hurrengo bilkurak

7.4.1 Abian diren erakusketak:

- *Hitzak lege.* Euskal Herriko Unibertsitatean, Karlos Santamaria eraikineko Txillardegi gelan, erakusketa muntatu zen 2024ko apirilaren 8an, eta maiatzaren 10ean desmuntatuko da.

- *Pirinioetako hizkuntzak*. Antsoaingo Idaki udal kiroldegian muntatu zen 2024ko apirilaren 19an, eta maiatzaren 13an desmuntatuko da.
- *Euskara ibiltaria*. Apirilaren 22an muntatu zen, Durangon, Plateruenan, eta maiatzaren 16an desmuntatuko da.
- *Euskara Ezkabarten*. Maiatzaren 6an hasi eta maiatzaren 26an amaituko da.

7.4.2 *Hurrengo osoko bilkura*. 2024ko maiatzaren 31n egingo da Baionan, Herriko Etxean, 10:00etan.

8. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:00etan.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Erramun Osa
Idazkariordea